



ZER MUGIARAZTEN DU EUSKARAK GALDAKAOKO GAZTEEN ARTEAN?

EUSKARA IKERKETA TXOSTENA

GAZTE BERPIZTU

AURKIBIDEA:

1. SARRERA.....	3
2. METODOLOGIA.....	5
3. PARTE HARTZAILEAK	7
4. ONDORIOAK	10
5. HAUSNARKETA	13
6. ERANSKINAK.....	16

1. SARRERA

EUSKARA IKERKETA: ZER MUGIARAZTEN DU EUSKARAK GALDAKAOKO GAZTEENGAN?

Gazteriak euskararekiko duen iritzia eta sentipenak ezagutzeko, ikerketa parte-hartzaile xume bat antolatu dugu. Galdetegi baten bidez, herriko gazteria elkarrizketatu dugu. Galdera ezberdinak egin dira ahalik eta informazio gehien lortzeko, errealitatera hurbiltzeko asmoz. Galderak on line, kaletik, lokaletan, tabernetan, ikastetxeetako jolas orduetan....burutu dira, metodologia parte-hartzailea izanik.

Ikerketa xume honek, etorkizuneko esku-hartzei begira zenbait gako eskaintzea helburu delarik. Galdetegietan jasotako erantzunak kontuan hartuz, ateratako ondorioak kontuan hartuz, Gazte BERpiztu! programatik euskararekiko dauden beharriaz aurre egiteko ekintzak sortu nahi ditugu: mintzalagunak, euskara sustatzeko kirol ekintzak, mahai jolasak euskaraz...

Abuztuan analisia egiteko dinamika parte-hartzaile bat diseinatu genuen. Irailean herriko jaiak aprobetxatuz, eta kuadrillen arteko txapelketa medio, kaleetan ibili gara gazteak dauden espazioetan, gazteriari euskararekiko zer sentitzen duenari buruz galdetuz.

Analisi prozesua dinamikoa eta parte-hartzailea izan da eta azarora arte iraun du. Abenduan, euskararen eguna aprobetxatuz, ondorioekin ekimenen bat egiteko aprobetxatu dugu. Plangintza guzti hau, Euskara arloko teknikariarekin elkarlanean garatuta izanik.

Ikerketa Galdakaoko 16-30 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Ikerketa hau aurrera eramateko galdetegi bat gauzatu da eta gazteen artean elkarrizketak egin dira ahal eta informazio gehien lortzeko asmoz. Ikerketa xume hau galdetegi baten bidez egin da, honekin, gazteek euskararen inguruan duten sentimenduaz hitz egitea eta hausnartzea lortzeko asmoz.

Izan ere, orain arte kale hezitzaile moduan izandako esperientziagatik, zailtasun eta erresistentzia handiak ikusi ditugu euskararekiko gazteen artean. Nahiz eta guk hasieratik euskaraz egin, gazte askok erderaz erantzuten dute: askok ez dakitelako eta beste batzuk nahiz eta jakin erderaz egiten erosoago sentitzen direlako. Hala ere, badaude hasieran euskaraz egiten saiatzen direnak baina, gurekin konfiantzazko harremana sortzen denean, ia denek erderaz egiten dute, erosoago sentitzen direlako. Honetaz gain, ekintza askotan euskararen erabilera izan da parte hartzeko baldintzetako bat eta gazte kuadrilla asko parte hartu gabe geratu dira ez dutelako bere burua euskarazko ekintzetan parte hartzen ikusten.

Hala ere, ekintzak euskaraz egin direnean, nahiz eta gazteek euskaraz ez egin ez dute izan arazorik guk tailerra euskaraz emateko orduan.

Beraz, guztia hau kontuan hartuta gazteek euskararekiko duten sentimendua aztertzea ezinbestekoa iruditu zaigu. Guzti honi irtenbide bat bilatzeko asmoz, garrantzitsua deritzogu euskararekiko dituzten erresistentzia horiek nondik datozen ulertzea. Hau lortuz gero, errazagoa izango da euskararen erabilera sustatzeari bideratuta egon daitekeen ekintzak sortzea.

Ikerketa burutzeko egin dugun galdetegia hiru atal ezberdinetan banatuta egongo da. Lehenengo atalean euskararekiko izan duten lehen harremana eta ezagutza maila aztertuko da. Bigarren atala, euskararekiko duten sentimendua ezagutzera bideratuko da. Eta azkeneko atala, gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko dituzten proposamenei buruz galdetu zaie. Hau aurrez aurreko elkarrizketekin zein sare sozialetatik zabalduko den galdetegiarekin gauzatu da.

2. METODOLOGIA

Sarreran aipatu bezala, ikerketa burutzeko hiru atalez osatutako galdetegi bat egin dugu (*eranskinetan atxikitua, Hasierako Galdetegi orokorra*). Hasieran, galdetegi hau ere online formatuan egin genuen, sare sozialetik difusioa eginez, Galdakaoko gazteek on line bete zezaten. Galdetegi bera, herritik zehar kuadrilla desberdinei pasatzen hasi ginenean konturatu ginen, bai gazteek esanda eta bai denboraz asko luzatzen zela ikusirik, galdetegia luzeegia zela, hau da, azkar erantzuteko galderak izanda ere, eztabaidak sustatzea ahalbideratzen zuen eta nahiz eta eztabaida horietan informazio asko jaso, denboraz asko luzatzen zen.

Beraz, galdetegia berriro birmoldatu genuen, galdetegi xumeago bat eginez (*eranskinetan atxikitua, galdetegi xumea*). Galdetegi xumea kuadrilla eta gazteei pasatzerako orduan, galdetegi eraginkorra zela ikusi genuen: laburra, informazio nahikoa jasotzeko tresna eta gazteentzako ez hain astuna. Beraz, hilabete hauetan, birmoldatutako galdetegi hau erabili dugu erreferentzia moduan hartuta.

Bestetik, Plazakoetxeko Topaguneko gazteei galdetegia pasatzeko asmoz, Topaguneetako koordinatzailearekin bildu ondoren eta ze perfileko gazteak dituzten jakinik, galdetegia berriro ere moldatzea tokatu zitzaigun. Kasu honetan, dinamikoagoa egiteko asmoz, galdetegiko galderak beste modu batean planteatu genituen (ez hain galdera irekiak) eta galdetegiak dituen hiru atalak sakabanatu genituen dinamika desberdinen bidez erantzun zezaten. Horrela, 14-17 urte bitarteko adin txikiko gazte hauen inpresioak euskararen inguruan eta galdetegiko erantzunak, jolas eta dinamika desberdinen bidez, era informal eta dinamiko batean jaso genituen.

Galdetegiaren atalarekin bukatzeko, aipatu beharra dago, kuadrilla guztiei galdetegia euskaraz pasatu zaiela. Bestetik, gazteek galdetegia erantzun dute eroso sentitzen diren hizkuntzan eta kasu batzuetan galdetegiko galdera batzuk erderaz azaldu behar izan zaie galdera ondo ulertu zezaten.

Galdetegia pasatu ondoren, Abenduak 3, Euskararen Egunerako moskeo kanpaina bat egin dugu. Kartel eta flyers desberdinak egin ditugu galdetegian ateratako gazteek esandako hainbat esaldirekin. Adibidez:

- Kuadrillan denek dakigu euskaraz baina ez dugu euskaraz egiten.
- Euskara euskaldunen hizkuntza da eta zaindu beharko litzateke.
- Euskara asko erabiltzen den herrietan gehiago erabiltzen dugu.
- Lotsa ematen dit euskaraz hitz egitea gauza batzuk gaizki esan ahal dudalako.
- Euskara institutuan erabiltzen dut bakarrik.
- D Ereduan ikasi dut.
- Erosoago sentitzen naiz gazteleraz hitz egiten.
- ...

Kartel eta flyers hauek, esaldiez gain, QR bat daramate, link baten bidez Galdakaoko web orrira bideratzen duena. https://www.galdakao.eus/gazte_berpiztu

Link.a sakatuz, eta moskeo kanpainarekin jarraituz, web orrian bi galdera planteatu ditugu jendeak erantzun dezan.

- 1- Nork esaten ditu esaldi hauek? Gazteak, helduak edo jubilatua.
- 2- Ze adin tarte duzu? 12-16, 16-20, 20-30, +30...

Horrela, QRak kuxkuxeatzera ze profiletako jendea sartzen den jakiteko eta Euskarazko moskeo kanpainak ze arrakala sortu duen herrian ikusteko asmoz.

Galdakaoko auzo desberdinetan (kaletik, ikastetxeetan, parkeetan, autoetan, lurrian, paper ontzietan, lokaletan, esertzeko bankuetan, tabernetan...) kartelak eta flyers-ak itsasi eta utzi ditugu, Galdakaoko jendeak ikus dezan, deigarri egin zatzaioten eta bide batez QR-ari emanaz, moskeo kanpainak zentzua izan dezan.

QR eta linkeko estatistikak kontuan hartuz, guztira 32 pertsona sartu dira QR bidez.

Abenduak 3, eta 5ean bisitak parekatuak izan dira. Abenduak 4an ordea, bisiten ehunekoak nabarmen gora egin du, jende gehien sartu den eguna izanik. Abenduak 6 eta abenduak 7an ordea, beherakada egin du.

Bi galderen erantzunei erreparatuz, gehiengoak gazteek esaten dituzten esaldiak direla erantzun dute. Beste gutxi batzuk, helduen hitzak direla irten da. Erantzundako jendearen adina ere 12-16 eta 20 eta 30 urte bitartekoak dira erantzun duten gehienak. Beste batzuk +30 urtetik gorakoak. *(Eranskinetan atxikitua, moskeo kanpaina herritik eta estatistikak)*


Moskeo kanpaina eta gero, sare sozialetan Euskara Ikerketan ateratako ondorioak argitaratuko ditugu, konkretuki @Galdakaogazt Instagram kontuan.

Bukatzeko, Euskara Ikerketako txosten hau egin dugu, Gazteria teknikaria eta Euskara arloko teknikariekin konpartitzeko asmoz.

3.PARTE HARTZAILEAK

Esan bezala, ikerketa xume hau Galdakaoko gazteekin gauzatu da. Galdakaoko gazteek euskararekiko duten sentrazioa zein den ezagutzeko asmoz, 144 gazteekin egon gara.

144 hauetatik 21 online izan dira eta 123 aurrez aurre egin dira. Gazte hauen adin tartea 14-32 urtekoa izanik. Galdetegia erantzun dutenen artean 90 gizonezkoak izan dira eta 54 emakumezkoak.



Ikerketa hau gauzatzeko gazteak egoten diren lekuetatik egon gara, ahalik eta gazte gehienengana heltzeko asmoz. Hau da, galdetegia gazte lokaletan, parkeetan, tabernetan eta institutu zonaldean egin da. Leku ezberdinetatik ibili garen heinean, gazteak ere Galdakaoko auzo ezberdinetakoak izan dira: gehiengo erdigunean bizi da, galdetegia erantzun dutenen artean 95 gazte erdigunean bizi dira. Erdigunetik kanpo Usansoloko 15 gazte erantzun dute, Urretako 12, Aperribai auzotik 8, Elexaldetik 3,


Muguru auzotik 2, Bengoetxetik 3, Berezikoetxetik 2 gaztek, Bekea auzotik 2 eta Arkotxatik gazte bakarrak. Galdakaotik eta Usansolotik kanpo gazte bat egon da, Lemoakoa.

Zein auzotakoak dira gazteak?			
Auzoa / herria	Gazte kopurua	Auzoa / herria	Gazte kopurua
Erdigunea	95	Muguru	2
Usansolo	15	Berezikoetxe	2
Urreta	12	Bekea	2
Aperribai	8	Arkotxa	1
Elexalde	3	Lemoa	1
Bengoetxe	3		

Parte hartu dutenen artean, gehiengoa erdigunekoa izanda, gehiengoek Gandasegin edo Eguzkibegi ikastolan ikasi dute. Bigarren hezkuntza berriz, Elexalden, Andra Marin edo Galdakaotik kanpo ikasi du gehiengoak. Baina orokorrean anitzak izan dira aipatu izan diren eskolak eta institutuak: Bengoetxe, Urreta, Unkina, Aperribai, Maristas eta Lauaxeta besteak beste. Beste batzuk unibertsitateko ikasketak egiten ari dira. Lanbide Heziketan dauden gazte askok ere erantzun dute, gehienak Andra Mari Eskolan edo Galdakaotik kanpoko zentroetan daude ikasten. Ikasketa mailari erreparatuz gero, erantzun ezberdinak jaso dira: DBH, Batxilergoa, Erdi maila zikloa, Goi mailako zikloa eta Unibertsitatea.


Nahiz eta ikastetxeak eta zentroak ezberdinak izan, gazte gehienek D ereduan ikasi dute. Galdetegia erantzun dutenen artean 5ek B ereduan ikasi dute eta 3k A ereduan. Gainontzeko 136ak D ereduan ikasi dute, bereziki derrigorrezko ikasketak izan direnean.

Goi mailako ikasketetan aldaketa bat ematen da eta honetan, ohikoagoa da gazteek euskara eta gaztelania erabiltzea ikasterako orduan.



Gazte hauei haien

ama hizkuntzagatik galdetzerakoan, gehiengoak bere ama hizkuntza gaztelera dela esan du, 144 gaztetik 90ek gaztelera dute ama hizkuntza bezala. 144 gazte horietatik 45ek berriz, haien ama hizkuntza euskara dela esan dute. 8k bi hizkuntzak dituzte ama hizkuntza bezala eta batek euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat. Beraz, gehiengoak (%62,5) euskara eskola eta ikastolan ikasi izan du.



4. ONDORIOAK

Galdetegiaren ondorioak ateratzeko orduan, galdetegia hiru atal ezberdinetan banatuta egon denez, ondorioak ere hiru atal hauek erabiliz atera ditugu.

Lehenengo atala: Euskararekiko izan duten lehen harremana eta ezagutza maila

Gehiengoek euskara eskolan ikasi dute eta gutxi batzuek etxean. Euskara eskolan erabiltzen dute gehienbat, nahiz eta pertsona batzuk bai aipatu duten anai-arrebekin edo familiarekin ere hitz egiten dutela. Lagunen artean ordea, ez dute ohiturarik euskaraz hitz egiteko, nahiz eta gehiengoek esan badakitela.

Udalak antolatutako ekintzetan gehiengoek ez dute parte hartzen. Gutxi batzuk ez dute hartzen parte, euskara bere osotasunean baldintza bat delako baina beste askok, orokorrean ez dute hartzen parte, ez euskararengatik, baizik eta ez dutelako parte hartzeko ohiturarik antolatzen diren edozein ekintzetan.

Sare sozialak, telebista, egunkaria, irratia, podscat.ak, eta abar moduko edukiak erderaz kontsumitzeko joera dute. Gutxi batzuek aipatu dute telebistako albistegia batzuetan euskaraz ikusten dutela edo eta marrazki bizidunen bat. Baina orokorrean ez dute joera edukiak euskaraz kontsumitzeko.

Euskara eta erderaren artean, hitz egiteko edo eta bi hizkuntzen artean aukeratu beharko balute, erderara jotzen dute, hizkuntza hau nabarmenena izanik.

Bigarren atala: Euskararekiko duten sentimendua:

Euskaraz aritzerakoan zelan sentitzen diren galdetzerakoan gehiengoak euskaraz egiten ondo edo normal sentitzen dela esan du. Baina badaude, euskaraz hitz egiteko esfortzu bat egin behar dutela esaten duten gazteak edota urduri jartzen direnak ere.

Norekin sentitzen diren erosoan euskaraz hitz egiterakoan, gehienak familiarekin eta irakasleekin esan dute. Orokorrean etxean euskaraz aritzen direnak, familiarekin sentitzen dira erosoan euskaraz aritzen, ohitura dagoelako. Euskara batez ere esparru formaletan erabiltzen dutenen artean, irakasleekin edo ikastetxean sentitzen dira

erosoen. Badaude ere, haien egunerokotasunean euskara erabiltzen ez duten gazteak, ez familiarekin eta ez klasean, eta beraz, erosotasun hori ez dutenak sentitzen.

Gehiengoari ez zaio ardua euskaldun batek erderaz egitea. Ondo edo normal sentitzen direla erantzun du gehiengoak. Gutxi batzuk, arraroa egiten zaiela edota pena ematen diela erantzun dute. Eta beste gutxi batzuk berriz, eskertzen dutela esan dute. Haien euskara maila dela eta, eta haien euskaraz aritzeko ohitura faltagatik erosoago sentituko direlako.

Euskarak daukan garrantziaz galdetzean, euskarak haien bizitzan garrantzi handia daukala erantzun dute, Euskara gure hizkuntza dela eta zaindu behar dela azalduz. Beste batzuentzat, maila txikiago batean, euskarak ez dauka garrantzirik edo oso garrantzi gutxi dauka haien bizitzan. Ez daukate harreman estua euskararekin eta beraz, ez diote garrantzi handirik ematen.

Euskararen inposaketaren inguruan hitz egiterakoan, gazte gehienek ez dela inposatua esan dute. Euskara gure hizkuntza dela eta ondo dagoela eskoletan eta leku publikoetan euskara irakastea eta erabiltzea. Baina, badaude euskara inposatua dela sentitu duten gazteak. Askok euskararekin identifikatzen ez direlako edota hau ikasteko modua egokiena ez delako izan. Inposatua dela sentitu dutenen artean, asko Eguzkibegi ikastolako gazteak izan dira.

Gazteei euskarazko elkarrizketa bat edukitzeko maila nahikoa badute galdetu diegunean, gehiengoak baietz erantzun du. Oso gazte gutxik erantzun dute ez daukatela euskaraz elkarrizketa bat edukitzeko gaitasunik.

Azkenik, gehiengoak ulertzen du Udaletxearen egitasmoak euskaraz izatea, Udaletxe moduan euskara bultzatu behar dela uste baitute. Udaletxearen ekintzetan parte-hartzeko euskara baldintza bat ez bada, euskara are gutxiago erabiliko zela uste dute. Hala ere, badaude Udaletxeak euskara bultzatzea ondo ikusten dutenak baina, zorrotzgiak direla pentsatzen dutenak ere.

Hirugarren atala: Gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko dituzten proposamenak:

Orokorrean badakigu jendeak ez duela euskaraz egiten nahiz eta euskaraz jakin, gazteekin hau komentatzerakoan erantzun ezberdinak jaso dira baina gehien errepikatu diren erantzunak: ohitura faltagatik eta jende gaztelaniaz egiten erosoago sentitzen delako izan dira. Gehiengoak dio, euskara txikitatik era natural batean erakutsiko balitz gero, esparru ez formaletan erabiltzeko ohitura handiagoa egongo zela. Izan ere, gazte askoren iritziz euskara beste modu batean irakatsi beharko litzateke. Beste batzuek berriz, euskaraz aritzeko interes falta bat dagoela adierazi dute. Gazteak gaztelaniaz aritzea nahiago dutela.

Bestetik, gazteen artean euskararen erabilpena sustatzeko zer egin dezakegun galdetzean, zailtasunak ikusi ditugu erantzunak lortzeko. Gehiengoak ez du jakin zer erantzun eta erantzun dutenen artean utopikoa den zerbait dela adierazi dute. Askok, txikitatik ez bada egiten ez dute uste gero ohitura falta hori aldatu ahal denik. Gutxi batzuk euskaraz eduki gehiago sortzea proposatzen dute, euskarazko eduki oso gutxi dagoela esan dute eta oso zaila dela telebistan edota sare sozialetan kalitatezko edukiak euskaraz aurkitzea. Egunerokotasunean edukiak euskaraz jasotzen badira, euskara gehiago erabiliko zela diote.

Amaitzeko, jendea euskaraz aritzen denean eroso sentitzeko zer egin dezakegun galdetzean, gazte askok, norbait euskaraz hitz egiten hasten bada, euskaraz egiten jarraitzea izango zela idealena erantzun dute. Eta honekin batera, beste gazte askok, norbait euskaraz hitz egiten duenean barrerik ez egitea proposatzen dute. Askori lotsa ematen die euskaraz hitz egiteak, zeozer txarto esan ahal duelako eta beraz, pertsona batek saiakera egiten duenean eta okertzen denean barre egiteak, beste pertsonari saiakerak egiteko gogoak kendu ahal dizkio.

5. HAUSNARKETA


Behin ondorioak aterata eta ikerketan zehar behaketaren bidez batutako informazioa kontuan hartuz, hausnarketa orokor bat gauzatu dugu.

Orokorrean galdetegia pasatzerako orduan berdin zaiela euskaraz izatea esaten dute baina gero gaztelera erantzun dute gehienek. Gazte gehienek nahiz eta saiakera egin galdetegia euskaraz egiteko, gaztelera egiten bukatu dute. Orokorrean hizkuntza honetan erosoago sentitzen direla adieraziz, beraien egunerokotasunean gaztelera delako erabiltzen duten hizkuntza.




Orokorrean **gaztelera** erosoago sentitzen dira. Askok galdetegia **gaztelan** erantzun dute.

Galdetegian gazte askok euskara maila nahikoa daukatela aipatu dute baina askok zailtasunak eduki dituzte galdetegia bere osotasunean euskaraz gauzatzeko. Momentuan esan nahi zutena adierazteko orduan, era natural eta jarraikortasun batekin egiteko trabak izan dituzte.



Nahiz eta euskara maila nahikoa dutela esan, **zailtasunak** egon dira batzutan galdetegia erantzuteko.

Nahiz eta gehiengoan ama hizkuntza gaztelera izan, gazte gehienek D eremuan ikasi dute. Beraz, gazte hauek euskara eskolan ikasi dute. Ikastetxe desberdinetan ikasi duten heinean euskararekiko sententzioak anitzak izan dira, baina orokorrean euskara irakasteko era ez dela egokiena izan aipatu dute. Izan ere, euskara esparru formalarekin erlazionatzen dute eta ondorioz beste esparruetan ez dute horrenbeste erabiltzen.



Eskolan ikasi dute gehienek euskara eta gehiengoak **irakasteko modua ez dela egokiena** uste du.

Adibidez, esanguratsua da, kuadrilletan gazte denek euskaraz dakitela baina gero beraien artean ez dutela euskara erabiltzen. Aipatzekoa da ere, ama hizkuntza euskara duten gazte askok ere, kuadrillan gaztelera hitz egiteko ohitura dutela.

Hala ere, testuingurua kontutan harturik, euskara noiz erabiltzen duten galdetzean, gazte kuadrilla askok Galdakao herrian (kiroldegian, erosketak egiterako orduan, tabernetan...) ez dutela euskaraz hitz egiten esaten dute. Bestalde, Galdakaotik kanpo, gazte batzuk, euskara asko erabiltzen den herrietan, euskaraz mintzatzen direla aitortu dute.

Honekin lotuta, kontraesanak ikusi ditugu galdetegia pasatzerako orduan. Gazte askok erantzun dute euskararen garrantziaren harira, oso garrantzitsua dela beraientzat hizkuntza: euskara zaindu behar dela, hizkuntzarik zaharrena dela, Euskal Herriko sinboloa dela eta harro daudela adieraziz. Baina gazte gutxi izan dira hau esan eta euskara beraien egunerokotasunean erabiltzen dutenak. Aldi berean, badaude beste gazte batzuk, euskarak berengan ez duela sentimendurik sortzen eta argi dutenak, hizkuntza bat gehiago dela, eta ez mintzatzeak ez diela ezer suposatzen.

Galdera hau egiterakoan aipatutako bi iritzi kontrajarri egon dira. Alde batetik ikusi ditugu euskararen erabilpena eta garrantzia berdin zaienak eta bestetik, euskararekiko hausnarketa bat egin dutenak. Nabarmenezkoa da, azken hauek, militantziarekin harremana duten gazteak izan direla orokorrean.

Euskararen baldintza eta erabilera udal zein administrazioek bultzatzearen harira, gazte askok uste dute euskara sustatzeko beharrezkoa dela. Teorian egokiena dela esan dute baina praktikara jotzerakoan, errealitatea beste bat dela ikusi izan dugu. Orokorrean herri mailan ez dago parte hartzeko ohiturarik eta gazteek esaten dute gazteleraz erosoago sentitzen direla. Beraz, ekintzetan euskara baldintza bat izateak, inoiz gazte batzuen parte hartzea baldintzatu du.



Gazteek euskararekiko duten inpresioa **gorabeheratsua** eta **kontraesanez** josia dago.

Beraz, ondorioak aterata eta ikerketa prozesuan behatutakoa erreparatuz, Galdakaoko gazteen euskararekiko inpresioa gorabeheratsua eta kontraesanez josia dagoela ikusi dugu. Orokorrean, esan dezakegu gazteen artean ez dela euskara erabiltzen testuinguru konkretuetan ez bada. Egia da salbuespenak daudela gazteen artean, baina nahiz eta

gazte batzuek sentimendu handia eduki euskararekiko, gazte askorentzat ez da lehentasun bat.

Nahiz eta gazte batzuentzat **euskarak garrantzi handia** eduki, beste askorentzat euskara **ez da lehentasun bat.**

6. ERANSKINAK

Hasierako Galdetegi orokorra:

GALDETEGIA

Adina:

Zein hizkuntzatan nahiago duzu galdetegia?:

1. Zatia:

- Zein da zure ama hizkuntza?
- Zein izan zen zure lehen harremana euskararekin?
- Nola ikasi duzu euskara?
- Zenbat esango zenuke erabiltzen duzula euskara zure egunerokotasunean?
- Tabernetan, dendetan... zein hizkuntzatan aritzen zara? Eta Udaletxean, liburutegian, kiroldegian...?
- Norekin erabiltzen duzu normalean?
- Esparru formaletan, gehiago erabiltzen duzu: lanean, ikasten... eta atsedean momentuetan?
- Kuadrillan denek dakite euskaraz?
- Kuadrillan badago euskaraz aritzeko ohitura?
- Euskara baldintza bat den ekintzetan parte hartzen duzu? Edo motibazio handia eduki behar duzu horretan parte hartzeko?
- Euskaraldia, euskararen eguna... euskara aldarrikatzen duten urteko egun berezietan parte hartzen duzu?
- Euskal Herritik kanpo zaudenean lagunekin, familiarekin... euskaraz hitz egiten duzu?
- Ligatzeko euskara erabiltzen duzu?
- Sare sozialetan, telebistan, egunkarrietan... euskara erabiltzen duzu? Eta edukiren bat euskaraz jasotzen duzu?
- Zeozer irakurri, erantzun edo entzun behar duzunean eta aukera ematen dizutenean erdera edo euskararen artean, zein aukeratzen duzu? Zergatik?

2. Zatia:

- Zelan sentitzen zara euskaraz aritzen zarenean?
- Euskalduna bazara, zelan sentitzen zara jendeak erderaz erantzuten dizunean?
- Euskarazko elkarrizketa batean euskaldun zaharrak egoteak zelan sentiarazten zaitu?
- Norekin sentitzen zara erosoago euskaraz aritzen?
- Euskaldun berria bazara, esan duzun lehen hitza euskaraz esaten duzu?
- Zelan sentitzen zara euskaldun batek erderaz hitz egiten dizunean?
- Zure egunerokotasunean elkarrizketak euskaraz edukitzen saiatzen zara?
- Zelako garrantzia dauka euskara zure bizitzan?
- Uste duzu euskara galtzen ari dela? Zergatik? Zelan sentiarazten zaitu honek?
- Euskara inposatua dela uste duzu?
- Euskal Herrian bizitzeko eta elkar-bizitzeko euskara garrantzitsua da?
- Euskara ez dakitenek baztertuta sentitzen direla uste duzu?
- Uste duzu euskara maila nahikoa daukazula elkarrizketa bat eramateko adibidez?
- Garrantzitsua da zuretzat herriko gazteek euskara gehiago erabiltzea?
- Ulertzen duzu administrazioek ateratzen dituzten ekimenetan euskara parte hartzeko baldintza bat izatea?
- Euskara inposatua dela sentitzen duzu?

3. Zatia:

- Zergatik uste duzu jendeak ez duela euskaraz egiten nahiz eta euskaraz jakin?
- Zer egingo zenuke gazteen artean euskararen erabilpena sustatzeko?
- Zer egin dezakegu jendea euskaraz aritzen denean eroso sentitzeko?
- Uste duzu baliabideak daudela euskara ikasteko edo hobetzeko?
- Administrazioek euskararekiko duten jarrera eraginkorra dela uste duzu?
- Komentatu ez dugun zerbaiten inguruan zeozer faltan botatzen duzu?
- Proposamenik?

Galdetegia laburragoa, xumea:

Adina:

Sexua:

Galdakaoko zein auzotan bizi zara:

Non ikasi duzu?:

Zein eredutan ikasi duzu?:

Ikasketa maila:

Zein da zure ama hizkuntza?:

1. Zatia:

1. Nola ikasi duzu euskara?
2. Euskara non erabiltzen duzu? (familia, lagunak, eskolan, tabernetan, ligatzeko...)
3. Kuadrillan denek dakite euskaraz?
4. Kuadrilla badago euskaraz aritzeko ohitura?
5. Euskara baldintza bat den ekintzetan parte hartzen duzu? Edo motibazio handia eduki behar duzu horretan parte hartzeko?
6. Sare sozialetan, telebistan, egunkarietan... euskara erabiltzen duzu? Edukiren bat euskaraz jasotzen duzu?
7. Erdera eta euskararen artean zein aukeratzen duzu?

2. Zatia:

1. Zelan sentitzen zara euskaraz aritzen zarenean?
2. Norekin sentitzen zara erosoago euskaraz egiten?
3. Zelan sentitzen zara euskaldun batek erderaz hitz egiten dizunean?
4. Zelako garrantzia dauka euskarak zure bizitzan?
5. Euskara inposatua dela uste duzu?

6. Uste duzu euskara maila nahikoa daukazula elkarrizketa bat eramateko, adibidez?
7. Ulertzen duzu udaletxeak ateratzen dituzten ekimenetan euskara parte-hartzeko baldintza bat izatea? Eraginkorra dela uste duzu?

3. Zatia:

1. Zergatik uste duzu jendeak ez duela euskaraz egiten nahiz eta euskaraz jakin?
2. Zer egingo zenuke gazteen artean euskararen erabilpena sustatzeko?
3. Zer egin dezakegu jendea euskaraz aritzen denean eroso sentitzeko?

Plazakoetxeko galdetegia dinamikekin:

Kartulina eta post-it.ak. Haiek jarri. Meriendarekin.

Adina:

Sexua:

Galdakaoko zein auzotan bizi zara?:

Non ikasi duzu?:

Zein eredutan ikasi duzu?:

Zein da zure ikasketa maila?:

Zein hizkuntzatan nahiago duzu galdetegia?:

- Zein da zure ama hizkuntza?

- Nola ikasi duzu euskara?

Termometro dinamika: ados eta ez ados.

- Euskara egunerokotasunean erabiltzen dut

- Familiarekin euskaraz hitz egiten dut.

- Lagunekin euskaraz hitz egiten dut.
- Irakasleekin euskaraz egiten dut.
- Kuadrillan denek dakite euskaraz.
- Kuadrillan euskaraz hitz egiten dugu.
- Sare sozialetan euskarazko edukiak kontsumitzen ditut.
- Ekintzetan parte hartzeko euskaraz hitz egin beharrak motibatzen nau.
- Euskara eta gaztelaniaren artean, euskara aukeratzen dut.

2. Zatia:

- Euskaraz aritzen naizenean ondo sentitzen naiz.
- Euskaraz hitz egiteko gaitasuna daukat.
- Euskaraz hitz egiten saiatzen naiz.
- Euskara garrantzitsua da niretzat.
- Galdakaoko gaztean euskaraz aritzea gustatuko litzaidake.
- Euskara inposatua da.
- Euskara galtzeak pena ematen dit.

3. Zatia:

- Jendeak ez du euskaraz hitz egiten ohitura faltagatik.
- Jendeak ez du euskaraz hitz egiten lotsagatik.
- Jendeak euskaraz daki baina ez du egiten.
- Badago herrian euskara sustatzeko aukera.

*Euskararekiko sentimendua hitz batean

- Zintzilikatzeko kordela

Moskeo Kanpaina herrian eta QR estatistikak

ADI GAZTE! Gazte Berpiztu

Euskara euskaldunon hizkuntza da eta zaindu beharko litzateke.

Baina... zer da hau?

ADI GAZTE! Gazte Berpiztu

Euskara asko erabiltzen den herrietan gehiago erabiltzen dugu.

Baina... zer da hau?

ADI GAZTE! Gazte Berpiztu

Badaukat **euskaraz** hitz egiteko gaitasuna.

Baina... zer da hau?

ADI GAZTE! Gazte Berpiztu

Euskara institutuan erabiltzen dut bakarrik.

Baina... zer da hau?

ADI GAZTE! Gazte Berpiztu



Kuadrillan denek dakigu **euskaraz** baina ez dugu **euskaraz** egiten

Baina... zer da hau?

ADI GAZTE! Gazte Berpiztu

Lagunen artean **euskaraz** egitea arraroa egiten zaigu, ez daukagu ohiturarik.

Baina... zer da hau?














Sitio Web

GazteBerpiztu euskara inkesta

No folder
Nov 26, 2024

qrco.de/bfextQ
www.galdakao.eus

32 Escaneos
Detalles →




	Fecha de envío	Nork esaten ditu ...	Zenbat urte dituzu?	+ AÑADIR
1 ☆	dic. 9, 2024	Gazteek	20-30	
2 ☆	dic. 4, 2024	Helduek	+ 30	
3 ☆	dic. 4, 2024	Gazteek	12-16	
4 ☆	dic. 3, 2024			
5 ☆	nov. 27, 2024	Helduek	16-20	
6 ☆	nov. 26, 2024	gazteak	+ 30	
7 ☆	nov. 26, 2024	gazteak	+ 30	
8 ☆	nov. 26, 2024	jubilatuak	+ 30	
9 ☆	nov. 26, 2024	helduak	16-20	
+ AÑADIR				